



LEHIAKETAREN OINARRIAK

BELDUR BARIK JARRERA 2025

AIARALDEA

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA



BULTZATZAILEAK
IMPULSAN



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Fuerzas Forales
de Gipuzkoa



GORRI
GIPUZKOA



LAGUNTZAILEAK
COLABORAN



Edukia

ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?	3
LANEN EZAUGARRI ETA BALDINTZAK	4
BALORAZIO IRIZPIDEAK	5
NORK ETA NOLA HAR DEZAKETE PARTE?	6
NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA	8
LANAK AURKEZTEKO EPEAK	8
EUSKADI MAILAKO SARIAK	9
LEHIAKETAREN EBAZPENA	11
HERRI BOZKAKETA	11
LEGE-ALDERDIAK	12
ANTOLAKETA	13

ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?

Beldur Barik EAEko erakundeek sustatutako programa bat da, gazteen arteko indarkeria sexista prebenitzera zuzendua, eta bere helburua gazteekin batera hausnarketak eta eztabaidak sustatzea da, gizartearen eraldaketan elkarlanean aritzeko eta gizarte sexista bat gizarte berdinzale bihurtzeko. Laburbilduz, **Beldur Barik jarrera bultzatu**. Horretarako, Beldur Barik programak baliabide desberdinak erabiltzen ditu

Beldur Barik jarrera gazteek sufritzen duten indarkeria matxistaren beste manifestaziobatzuk (translesbohomofobia) hautematean ere datza.

Honetarako, irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da eta indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste adierazpenak ematea ahalbidetzenduten faktoreen inguruan hausnarketa egiten du.

Erreferente positiboak erakustea du helburu: ahaldundutako neska indartsuak eta indarkeria sexistaren aurkako borroka aktiboan inplikatzaren diren mutil begirunetsuak, zeinek indarkeria sexista neskei bakarrik eragiten dien zerbait ez dela erakusten duten.

- Neskak: indarkeria edo desoreka egoeren aurrean ahaldundutze eta autodefentsa jarreraren erakusten ditu.
- Mutilak: Desoreken, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera autokritikoan, proaktiboan eta konprometituan erakusten ditu, korporatibismo maskulinoarekin hautsiz.
- Gorputzen, identitateen eta sexualitateen aniztasuna ikusarazten du.

Indarkeria, hau sortzen duten faktoreak, eta bere manifestazioak identifikatzeaz gain, kritikoa, urratzailea eta positiboa den jarrerarekin aurre egiten zaio.

Planteatzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan daitezke.

LANEN EZAUGARRI ETA BALDINTZAK

- Lan guztiak **ikus-entzunezko formatuan** aurkeztu beharko dira. Lanek **gehienez 3 minutuko luzera** izango dute, kredituak barne.
- **Lanek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote.** Aurkeztutako lanen edukiak helburuaren lorpenerako helburuarekin zerikusirik ez, edota beraren aurkakoa edota kalterakoa izanez gero, lehiaketa antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete. Ebazpena parte hartzaileei jakinaraziko zaie.
- Proposamenak originalak izan beharko dute, **plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsona batzuei kopiatu gabekoak**. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion autoretza probak eskatuko dira.
- Lanak ezin izango dira Beldur Barik programarekin lotuta ez dauden **beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan**.
- Lanak **euskaraz, gazteleraz, elebietara zein bestelako hizkuntzaren baten** aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelerazko azpitoluak badituzte. Honetarako, CapCut edo Wondershare bezalako aplikazioak erabiliz.
- **Ikus-entzunezkoak azpitoluak eraman behar dituzte.** Azpitoluen helburua irigarritasun bermatzea da. Azpitoluak fondo beltzaren gainean eta hitzak zuriak izatea gomendatzen da.
- **Autoretza eskubideetatik aske daudenak erabiltzea gomendatzen dugu** (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Autoretza eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte hartzaileek beraien gain hartzen dute bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, egiaztatzen badugu jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.
- Bideoa webgunera igotzerako orduan “izen-emate” atala online bete beharko da.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektu parte-hartzaileek Beldur Barik Jarrera islatu behar dute, hau da, indarkeria matxistaren adierazpen mota guztiak gainditzeko eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitze konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka, Beldur Barik Jarrera aldarrikatuz.

- Originalitatea mezuak adierazteko orduan.
- Begiraden irekiera gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeriaren adierazpenak identifikatzerako orduan.
- Aurkeztutako irtenbidearen ikuspegia eta tonua (Beldur Barik Jarrera, humorea, erantzunpositiboak etab.)
- Positiboki baloratuko da, bai euskararen erabilera, bai azpigituluak sartzea gaztelerazko audioa duten obretan.

NORK ETA NOLA HAR DEZAKETE PARTE?

12–20 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.

Adinaren arabera bi kategoria nagusi daude, baina, aldi berean, partaide kopuruaren arabera aukeratu beharreko bi modalitate.

Honako hauek dira Beldur Barik 2025 Lehiaketaren kategoriak:

- **1. kategoria: 12–16 urte beteko dituztenak (2013 eta 2009 urteen artean jaiotakoak)**
 - **1.1. Talde lanak:** Talde lanetan, eskolan, hezkuntza ez ofizialean edo kuadrillan egiten diren lanek izango dute lekua, eta beraz talde prozesu eta hausnarketa horiei bide emango zaie.
 - **1.2. Banakako lanak:** Banaka egindako lanak hartuko dira aintzat.
- **2. kategoria: 17–20 urte beteko dituztenak (2008 eta 2005 urteen artean jaiotakoak).**
 - **2.1. Talde lanak:** Talde lanetan, eskolan, hezkuntza ez ofizialean edo kuadrillak egiten diren lanek izango dute lekua, eta beraz talde prozesu eta hausnarketa horiei bide emango zaie.
 - **2.2. Banakako lanak:** Banaka egindako lanak hartuko dira aintzat.

Taldea adin tarte ezberdinetako gazteek osatzen badute eta parte hartzaileen %40 17 urtetik gorakoak bada, lana zuzenean bigarren kategorian lehiatuko da.

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

I. **eranskina** edo II. **eranskina** beteta aurkeztu beharko dute, horretarako izen web orrialdean izena ematerakoan atxikituta aurkituko dituzte ondorengo eranskinak.

- ☐ *I. Eranskina. Norbanakoen baimena: guraso zein legezko tutoreen baimena adin txikikoek Beldur Barik programan parte hartu dezaten.*
- ☐ *2. Eranskina. Taldekako baimena: ikasgela edo hezkuntza zentro bezala aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko ardura zentroko zuzendaritzarena izango da, zentroa bera izango delarik banakako baimenak jasotzearen arduraduna.*
- ☐ *Gaztelekuak eta elkarteak: proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak aurkeztu beharko dira, eta batera aurkeztu beharko dira.*

BELDUR BARIK LEHIAKETA AIARALDEAN

Euskal Autonomi Elkarte (EAE) mailakoa den lehiaketa hau Aiaraldean ere ospatuko dugu. Aukera dago bietan irabazteko, edota batean (EAE edota Aiaraldean). Sariak ere ezberdinak izango dira.

- Parte hartzerako lau kategoria daude:

- 1 kategoria: 2011 eta 2013 bitartean jaioetakoak (2025ean 12 edo 14 urte beteko dituztenak).
- 2 kategoria: 2008 eta 2010 bitartean jaioetakoak (2025ean 15-17 urte beteko dituztenak).
- 3 kategoria: 2005 eta 2007 bitartean jaioetakoak (2025ean 18-20 urte beteko dituztenak).
- 4 Kategoria berezia: Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleak. (DBH ez duten udalerrientzat).

NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

1. Lanak hurrengo plataforma batera igoz: Youtube, Instagram edo Tik Tok era. Plataforma hauek sortzen duten esteka da aurkeztu behar dena (gogoratu, bideoak modu publikoan argitaratu beharko dira). Formatu grafikoa bada, JPG formatuan erantsi behar da 2. pausoa azaltzen den formularioa betetzean.
2. Igotako bideoen deskribapenean, bideoaren izenburua erantsiko da, baita zein udalerritatik eta zein kategoriatik aurkezten den ere. Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.
3. Beldur Barik web orrialdean topatzen den formularioa bete ezazu, www.beldurbarik.eus helbidean. Formulario honetan aurretik ikus-entzutezko plataformara igotako bideoaren esteka jartzen da edo JPG formatuan dokumentua eransten da.
4. Formularioa osatu eta gero, izen ematea modu zuzenean burutu dela esaten duen mezua agertuko da.
5. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero programaren idazkaritza teknikoak egiaztatuko du oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
6. Egiaztatu eta gero, idazkaritza teknikoak formularioan erraztutako emailera jakinarazpena bidaliko du, lehiaketan onarpena edo ez-onarpena jakinaraziz. Onartutako lanak web gunean publikatuko dira

LANAK AURKEZTEKO EPEAK

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea 2025eko irailaren 22an irekiko da, goizeko 08:00etan, eta 2025eko azaroaren 9an itxiko da, gaueko 23:59etan.

BELDUR BARIK AIARALDEAN LEHIAKETA.

Epeak lehiaketa globalekoak dira.

EUSKADI MAILAKO SARIAK

1 . kategoria: 12–16 urte beteko dituztenak (2013 eta 2009 urteen artean jaiotakoak).

Talde lanak: 650 €.

Banakako lanak: 200 € + liburu sorta*.

2. kategoria: 17–20 urte beteko dituztenak (2008 eta 2005 urteen artean jaiotakoak).

Talde lanak: 650 €.

Banakako lanak: 200 € + liburu sorta*.

Publikoaren saria : 300 €.**

Ikus–entzunezko lan onenaren saria* : 300 €.**

Goian aipatutako sariei dagokien atxikipen fiskala aplikatu zaie.

Aurkeztutako lanek bai lehiaketa orokorrean bai lanean adierazten duten udalerriko tokiko lehiaketetan parte–hartuko dute. Kontuan izan herri guztiek ez dutela Beldur Barik tokiko lehiaketarik antolatzen.

*50 eurotan baloratutako genero perspektiba lantzeko ipuin bilduma, liburu–denda txiki baten eskutik.

**Publikoaren saria herri–bozketan boto gehien lortzen duen lanari emango zaio (edozein adin tartekoa izanik) baldin eta lan hori Beldur Barik Jarrera! Lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean badago.

***Ikus–entzunezko lan onenaren saria Beldur Barik Jarrera! adierazteko kalitatezko komunikazio artistikoko baliabideak edota kodeak erabili dituen kategorietako edozein lani emango zaio, edozein adin tartekoa izanik.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik uzteko eskubidea dute. Sarietako irabazleek beren lanaren eskubideak Emakunderi lagatzen dizkiote, gazteriarri zuzendutako kanpainetarako erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.

AIARALDEAKO SARIAK

- 1. kategoriako saria: 150€
- 2. kategoriako saria: 150€
- 3. kategoriako saria: 150€
- Kategoria bereziko saria: 150€

LEHIAKETAREN EBAZPENA

Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du, eta berau osatuko dute: proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak; aurreko edizioako irabazleak; eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hiru kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

BELDUR BARIK AIARALDEAN. EPAIMAHAIA.

Epaimahaia Aiaraldeko berdintasun teknikariek osotuko dute.

Lan sarituak ezagutzera emango dira 2025eko azaroaren 28an, Beldur Barik Topaketa Orokorrean.

HERRI BOZKAKETA

Epaimahaiak aldeaz aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, hain zuzen ere, Beldur Barik Jarrera irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin (oinarrietako lehen puntuan jasota datozenak). Horiek izango dira herri bozkaketara pasatuko diren lanak.

Parte hartzearen saria izendatzeko herri bozkaketa sistema azaroaren 15ean aktibatuko da, goizeko 08:00etan. Parte hartzeari saria irabaziko du azaroaren 20ko 23:59etan bozka gehien eskuratu dituen lanak. Izan ere, egun eta ordu horretan, bozkaketa prozesua itxi egingo da.

Bozkaketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Instagram eta Tik Token bidez.

Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, email masiboak sorrarazteko aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena etab.), herria saria hutsik gera liteke.

LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketara aurkeztutako parte hartzaileek baimena ematen diote Beldur Barik Programari, lana erabiltzeko BB inguruko ikus-entzunezko zein inprimitutako materialak sortzeko, promozionatzeko eta hedatzeko. Parte hartzaileek, gainera, honako ekintza hauetara baimentzen dute programa:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzera eta proiektatzera (Topaketan, programaren aurkezpen saioetan...)
- Lanak egokitzea proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara.
- Laneko irudiak edo pasarteak erabiltzera programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak etab.).

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programa harremanetan jarriko da formularioan zehaztutako kontakturako pertsonarekin.

Norbait ados ez badago klausula honekin, antolatzaileei idatziz jakinaraztea eskertuko da.

Lehiaketako antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik egonez gero. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dauden Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europar Legebiltzarreko eta datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegian ezarri dena betez, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazten du emandako datu pertsonalak Emakunde – Emakumearen Euskal fitxategi automatizatu batean sartuko direla, datuen tratamendua egiteko. Datuak ez zaizkio hirugarren bati emango, tartean legezko obligaziorik ez bada behintzat, eta ez zaizkio hirugarren herrialderen bati jakinaraziko. Datu hauen erabilera bakarra Emakunderen Beldur Barik programaren kudeaketara mugatzen da eta pertsonaren onespenean oinarritzen du bere tratamendua.

Interesdunek legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide ere. Datuen babesaren inguruko informazioa: www.euskadi.eus/proteccion-datos.

ANTOLAKETA

Lehiaketa Emakundek antolatzen du, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, Berdinsareareak eta EUDELeK bultzatzen dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzarekin.

Informazio gehiago: www.beldurbarik.eus
Idazkaritza Teknikoa (Parean Elkartea): info@beldurbarik.eus
Harremana: 843 740 288.

BELDUR BARIK AIARALDEAN. INFORMAZIOA

cayala.berdintasuna@ayto.araba.eus 686587889

berdintasuna@amurrio.eus 945 891161

berdintasuna@audio.eus 94 4034850

berdintasun.orozko@bizkaia.org 94 6339633

berdintasuna@urduna.com 94 6383003